


the balde



0€

ekaina | uztaila
june | july

58

pilaketa sasoia
jam season



58



the balde

antsoain 1

31014 iruñea

t. +34 948 12 19 76

f. +34 948 14 82 78

donostia ibilbidea. 11 behea

20115 astigarraga

t. +34 943 44 44 22

f. +34 943 33 60 66

www.thebalde.net

info@thebalde.net

publi@thebalde.net

m. +34 686 485 980

publizitatea bizkaian / publicity in bizkaia:

manukleart

+34 946 765 108 / +34 633 438 611

bizkaia@thebalde.net

harpidetzak / suscriptions: goizeder anton

argitaratzailea / publisher: eragin.com . komunikazioa eragin sl

editore / editor: iñigo martinez

zuzendaria / director: koldo almandoz

diseinu burua / head of design: martin etxauri

zuzendari komertziala / comercial director

& publikitatea / publicity: iñigo martinez

diseinua / design: martin etxauri, iker bereziartua, eneko etxandía, igor astigarraga, ekaitz auzmendi.

itzulpenak / translations: smiley, 11 itzulpen,

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: arkaitz villar, uxeta labrit, agurtzane ortiz, julen azpitarte, susana mugika, aritz galarraga, mikel zatarain, yolanda pividal.

ale honetako argazkilariak / photographers this issue: the balde crew, yosigo, oriol clavera, galder izagirre, tatiána luna.

komikia / comic: txo!?

harpidetza orria / subscription page: ion ulacia. usandizaga diseinu eskola.


azaleko irudia / cover image: yosigo

aurkibidea / sumary: txuma vazquez


inprimategia / printed at: espacegrafic

lege gordailua / legal: na-3244/01

The Baldek sortutako eduki guztiak honako lizentzia pean daude:

 Aitortu-EzKomertziala-LanEratorririkGabe 2.5 Espainia

Aske zara: lan hau kopiatu, banatu eta jendaurrean hedatzeko ondorengo helbidean zehazten diren baldintza zehaztetan: <http://www.thebalde.net/lizentzia>



Eusko Jaurlaritzako
Kultur sailak diruz
lagundutako aldizkaria



Lan berritzaile, irudimentsu eta ausartak egiten dituzula? bidali iezazkiguzu:
Imaginative, provocative and interesting works? send them to:
info@thebalde.net

urinelle


"Zer zortea duten mutilek... zutik egin dezakete!". Esaldi horrek ez du jada zentzurik. Amaitu da auto artean makurtuta eta ipurdia agerian ibiltzea. Amaitu da lagun bat bizkartzain gisa eraman behar izatea. Pitilnik ez da behar zutik txiza egiteko Urinelleri esker...

<http://www.urinelle.biz/html/sp/Howtouse.shtml>

urinelle

"Men are really lucky ... They can do it standing up! ". That sentence no longer makes sense. Bending down between cars with your arse in the air has finished. One of your friends standing guard has also finished. Thanks to Urinelle, you no longer need a willy to be able to pee standing up ...

<http://www.urinelle.biz/html/sp/Howtouse.shtml>



STAND UP & ...PEE

google street view

"Anaia handiak" ateratzen dituen erretratuekin liluratuta jarraitzen dugu. Zuetako batzuentzat Google maps edo street view egunerokotasunean txertaturiko gauza normala izango da. Gutariko batzuentzat, ordea, tresna horiek erabiltzea zientzia fikziozko film baten protagonista bihurtzea bezalakoa da. Webgune honetan Google street view-rekin ateratako argazki bilduma lurterra topatuko duzue.

<http://9-eyes.com/>

google street view

We're still amazed by the portraits that "Big Brother" produces. For some people, including Google Maps and Street View everyday life is the most natural thing in the world. But for some of us, using those gadgets is like becoming stars in some science fiction film. On this website you can see an earthling photo album put together using Google Street View.

<http://9-eyes.com/>

ehz jaialdia

laz sekulako ekaizta eta euritea izan genuen ehz jaialdia ospatzen zen gunean. Noeren ontzia bera ere hondoratu zen bertan, eta proiektu osoa bertan behera geratzeko arriskua izan zen. Aurten, ordea, indarberriturik eta kartel ikusgarriarekin dator: Jim Jones Revue, Goran Bregovich, Morsheeba, La Phaze, Ken Zazpi, Atom Rhumba,... Uztailak 1, 2 eta 3, Heletan.

www.ehz-festibala.com

ehz festival

There were incredible storms and floods when the ehz festival was held last year. Even Noah's Ark would have sunk there, and there was a danger that the whole project would be scuppered. But this year's programme is better than ever: Jim Jones Revue, Goran Bregovich, Morsheeba, La Phaze, Ken Zazpi, Atom Rhumba,... 1st, 2nd and 3rd July, Heleta.


www.ehz-festibala.com



José Antonio Sistiaga
Lorategi irudikatu bateko islak
 Erakustaretoa
 2011.06.16 - 2011.09.24



Josu Aranbarri Aramaio
PIZTIAK en gabeko kalapitxixak
 Ganbara
 2011.05.19 - 2011.06.18



Koldo Mitxelena Kulturunea
 Urdaneta 9 - 20006 Donostia - San Sebastián
 kmk.gipuzkoakultura.net
 Asteartetik larunbata arte: 11:00 - 14:00 / 16:00 - 20:00



Gipuzkoako Foru Aldundia
 Diputación Foral de Gipuzkoa
 Kulturaren Enkargatutako Departamentua
 Departamento de Cultura y Turismo

20 may 2011 / 23:00
 Global Funk 3º Aniversario Party: Arka & Makala djs
 @ Kafe Antzokia Bilbao

21 may 2011 / 23:00
 Global Funk 3º Aniversario Party: Arka & Makala djs
 @ Le Bukowski Donostia-San Sebastián

09 jun 2011 / 22:00
 Global Funk & Dock Of The Bay Party: Makala dj
 @ Momo Bar Bilbao

22 jun 2011 / 24:00
 Global Funk Party: Nickodemus (New York)
 @ Be Bop Donostia-San Sebastián

23 jun 2011 / 23:00
 Global Funk Party: Nickodemus (New York) & Makala djs
 @ Le Bukowski Donostia-San Sebastián

skunkfunk the balde gszte TAUPA demode

Heldu literaturari

ZER BARKATURIK EZ



Alberto Ladron Arana

Mikel Izuri ez zaio buruhausterik falta: emazte ohia batetik, bere anaia ganorabakoa bestetik ... Anaiaren etxera doan batean, haren arrastorik ez baina hatz moztu bat aurkituko du halako batean.

elkar

www.elkarargitaletxea.com

bread and butter

Bartzelona utzi eta Berlinen ospatzen da duela pare bat urte. Jantzi marka handi eta txikien bilgune eta erakusleho izaten da jaialdi hau sei hilabetetan behin. Moda gustuko baduzu, merezi du azaltzeak, eta modaz paso egiten baduzu... Berlinek eskaintzen du bestelako aukerarik. Uztailaren 6tik 8ra bitartean.

www.breadandbutter.com

bread and butter

A couple of years ago this stopped being held in Barcelona and now it's held in Berlin. This meeting and exhibition point for big and small clothes brands is held every six months. It's worth going to if you like fashion and, if you don't care about fashion ... then there's always Berlin itself. From the 6th to the 8th of July.

www.breadandbutter.com



surfilmfest

Bi zatitan dator aurten. Ekainaren 3 eta 4an azoka, tarp surf txapelketa eta surf kulturarekin zerikusia duten beste hainbat ekitaldi. 8tik 12ra filmek hartuko dute protagonismoa. Zinema pantailetan desioa eta instintoak kitzikatzen dituzten olatu pornografikoak ikusteko aukera ezin hobea izango dugu eta festibaila sailean, besteak beste, El Guinchoren kontzertua. Bete betea dator surfilmfestibalala!

www.surfilmfestival.com

surfilmfest

It comes in two lots this year. On the 3rd and 4th of July there's the tarp surf championship and many other events connected with the surf culture. From the 8th to the 12th of July, films are the main events. You'll be able to see great pornographic waves on the cinema screens that'll wake up your instinct and desire and, as part of the festival, El Guincho in concert. Surfilmfestibala's going to be quite something this year!

www.surfilmfestival.com



larru street art

Kalea euren artearen museo gisa erabiltzen duten artistek behin eta berriro harritzen gaituzte. Gure azken aurkikuntza, Neozoom kolektibo feministak larruaren erabilera salatuzko egin duena: kaleetako paretak larruz estali.

<http://www.neozoom.org/>

fur street art

Artists who use the street as their fine art museum keep on amazing us. Our latest discovery is Neozoom feminist association's use of fur in protest: covering walls in fur.

<http://www.neozoom.org/>

WAVES
IN FURS!

**Ikaragarri
gustatzen
zait the way
you talk
to me
maitia!**



**Iruñeko
Hizkuntza
Eskola
Ofiziala**

- | | | |
|-------------|--------------|-------------|
| ● euskara | ● alemana | ● txinera |
| ● ingelesa | ● gaztelania | ● japoniera |
| ● frantsesa | ● italiara | ● arabiera |

KONPAINIA KALEA 6 - 31001
<http://centros.educacion.navarra.es/eoip>
948 20 63 43



diseinua, internet
eta argitarapenak



my toy generation

Errequerre estudioak proiektu interesgarri bati ekin dio. Estudioa ireki eta galeria bihurtu du artistek bertan euren lanak erakusteko eta salgai jartzeko. "My Toy Generation" izenburua duen Miguel Orcal artista peruarrarekin hasi dira. Lan espazio bati erabilera berriak eta osagarriak emateko modu ederra.

www.errequerre.es

my toy generation

Errequerre studio's started on an interesting project. The artists have opened their studio and turned it into a gallery to show and sell their work. The first one is "My Toy Generation" by the Peruvian artist Miguel Orcal. A great way to make a new use of a work area.

www.errequerre.es



ARTE ETA PARTE

bikeNYC

Txirrindulariak eta euren bizikletak. Hori besterik ez. Erretratu hauek badute zerbait oinarrikoa, primarioa. Gizakiak beti erakutsi nahi izan du gehien maite duena. Garai bateko pinturetan zaldiarekin edo zakurrekin posatzen zen erretratuetan. Beranduago, autoaren aurrean... eta egun, New York-eko txirrindulari hauek halako harrotasuna erakusten dute euren bizikletaren konpainian erretratatuak direnean.

<http://gudphoto.com/bikenyc-portfolio/>

bikeNYC

Cyclists and their bicycles. No more than that. There is something basic, primary about these portraits. People have always wanted to show off the things they love best. Once upon a time, we used to pose with horses and bags in our portraits. Later on, in front of our cars. And now these New York cyclists are just as proud to have their portraits taken along with their bicycles.

<http://gudphoto.com/bikenyc-portfolio/>



moviebarcode


Webgune honetako arduradunek filmak hartu, eta fotogramak lerro fin bat izatera arte konprimitzen dituzte, filmak barrakode bihurtzeraino. Filmek koadro baten itxura hartzen dute, eta bakoitzean zein kolore den nagusi ikusteko aukera ematen du. Originala eta ederra.

<http://moviebarcode.tumblr.com/>

moviebarcode

The people in charge of this website take films and compress stills into single lines and then use the lines to make bar codes. The films look like pictures and you can see what the dominant colour is in each film. Original and beautiful

<http://moviebarcode.tumblr.com/>



Aholkularitza textil teknikoa & marka sorrera.

oninart™

textil communication eta abar · komunikazio textila & more

SERIGRAFIA · BORDATUA · TRANSFERRA
SCREEN PRINTING · EMBROIDERY · TRANSFER



DEBALDE IS
NOTHING
THE BALDE IS
EVERYTHING

the balde

-roentzako



tratu
berexia.

buatxabal
is powered by us

showroom

Plaza zaharra 5
31770 Lesaka (NA)
948 637 167 · 686 970 618
oninart@oninart.com
www.oninart.com

C'est un travail important.

Lan garrantzitsua ~~bat~~ da.

Itzulpen eta zuzenketa
zerbitzu profesionala

FRANTSESA | EUSKARA

GAZTELANIA | INGELESA | ALEMANA

11itzulpen
www.11itzulpen.com



gozatu
euskaraz



beste bat!!



musika
euskaraz

Noranahi goazela. Nonahi gaudela.
Gure jendareekin. Gure iritzia adierazi
nahi dugunean, geure erara. Euskara
gure bizimoduaren osagaia da. Berezkoa
dugu. Lagunen artean, gure giroan,
gure artean euskaraz.



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

karrikan

Kukai dantza taldeak, DJ baten musikaz lagundurik, kale dantza ikuskizuna garatu eta aurkeztu du (arrakastaz, Leioako Umore antzerki jaialdian saria irabazi zuelako). Hiru koreograforen proposamenak bildu, eta kale dantzaleku mugagabea izan daitekeela erakutsi digute.

www.kukai.info/eu/espectaculos/karrikan

karrikan

Kukai dance group, to a DJ's soundtrack, has put together and given a dance show to great success (it won a prize at the Leioa theatre festival). Bringing together three choreographers' ideas, they've shown us that the street's a limitless dance floor.

www.kukai.info/eu/espectaculos/karrikan



ocaña montehermoson

Zinema ziklo berezia eskainiko dio Montehermosok Jose Perez Ocaña artista eta aktibistari. 80ko hamarkadan ezagun egin zen anarkismoan eta gay-lesbo-trans mugimenduan egindako lanagatik. Film ugari azaldu zen, eta haren ibilbideak eragin handia izan zuen garaiko artistengan eta gizartean. Pertsona eta pertsonaia ezagutzeko aukera ederra Montehermoson, ekaina osoan zehar.

www.montehermoso.net

ocaña at montehermoso

Montehermoso's putting on a special film series about the artist and activist Jose Perez Ocaña. He became famous in the 80's thanks to his work in the anarchist and gay-lesbo-trans movements. He appeared in many films and his career was highly influential for artists and the society of that time. It's a great chance to find out about the person and the personality, all June at Montehermoso.

www.montehermoso.net

alhondiga

Ekainak 29 bitartean, Bilboko Alhondigan Ipar Korea izango da protagonista. Guretzat ezezaguna eta bizarroa den herrialdea izango da hizpide hainbat mintzalditan. Eta batez ere azken hamarkadetan herri hartan garatu den grafikagintza eta afixak ikusteko aukera izango dugu. Horretaz gain, zinema korearraren ziklo bat ikusteko aukera ere izango da.

www.alhondigabilbao.com

alhondiga

Until the 29th of June, North Korea's going to be the star at Bilbao's Alhondiga. This country, which is so unknown and strange to us, is going to be the subject of many conferences. Above all, you'll be able to see the graphic art and posters produced there during recent decades. You'll also be able to see a series of Korean films.

www.alhondigabilbao.com



UNKNOWN
UNTIL
NOW

no comment



uxeta labrit · amara auzoa, donostia



WOW



ADC[★]E

Only for the best in Europe

**20th Best of European
Design and Advertising
ADCE Awards**

8-9 July 2011, Barcelona

*** Looking for the WOW factor**

ADCE is the only Awards format in the world that brings to light all the award winning work from the European national competitions into one contest.

www.adceurope.org
www.facebook.com/ADCEurope
www.twitter.com/#!/ADC_Europe

Collaborators:



MIAMI AD SCHOOL EUROPE

Barceló Raval





memoriaren mapa
memory's map





Aldizkarian argitaraturik azaltzen diren argazki hauek "Memoriaren mapa" izeneko proiektuaren aleak dira. Niregan emozioen bat piztu duten objektu, momentu, toki edo pertsonen bilduma bat.

Analogikora hurbiltzeko asmoz jaio zen proiektua. Ez dakit zergatik baina badira medio digitalarekin jaso ezin ditudan hainbat gauza. Ez dira arazo teknikoak, sentsazio kontu bat da.


Sentsazio bereziak dira, pelikula errebelatzera eramatea, karretean dauden argazkiak ahaztea (ezabatzeko aukerarik gabe), inperfekzioetaz gozatzea... azaltzen eta defendatzen zailak zaizkidan gauza mordoak dira, baina hor daude eta asko estimatzen ditut.


The photos published here come from my "Memory's Map" project. It's a collection of people, places, moments and objects that move me.

The initial idea behind the project was to shoot in analogue. I don't know why, but there are many things I can't stand in digital format. It's not for technical reasons, it's a matter of sensations.

They're special sensations, taking a film to be revealed, forgetting which photos are on a film (and not being able to wipe them off), being able to enjoy imperfections... It's a lot of things that are difficult to explain or to justify, but they do exist and I love them.

www.yosigo.es/diary







barbie gaiztoa zenean
when barbie was bad

1952. urtean Reinhard Beuthien komikigileak Lilli izeneko pertsonaia sortu zuen *Bild Zeitung* egunkarian eskaini zioten komiki zintarako. Egilearen asmoa publiko zabal batentzako pertsonaia zuria sortzea izan zen, baina Lilli-ren izaerak eta izanak jarraitzaile maskulinoak eskuratu zituen hasera haseratik. Lilli, emakume gazte, txolin eta sexya zen eta gizonen fantasía ilunenak argitzen zituen bere ile horiarekin. Zin egingo genuke Nabokov-ek 1955ean Lolita idatzi zuenean Lilli zuela buruan. Lolita argitaratu zen urte berean, egunkariko paperezko bi dimentsioen kortsea askatu eta Lilli panpina fabrikatzen hasi ziren. Lepo fina, gerri hestua, hanka luzeak eta batez ere panpinari marraztu zioten begirada maltzur eta lizunari esker, Lilli fetitxe erotiko bilakatu zen. Denda eta tabernetan saltzen zuten eta, gehienetan, txantxak egiteko edo eta gizon ezkongaei oparitzen zitzaizkien Lilli panpina. Hasera batean egunkariak bitxikeria gisa kaleratu zuenak hainbesteko arrakasta izan zuen, ezen panpinen ekoizpena Hanburgotik Hong Kong-era eraman zuten.

Ruth Handler turista estatubatuarra, Elliot senarra eta Barbara eta Ken seme-alabekin Luzerna bisitatzen ari zela, Lilli panpina ikusi eta liluratuta geratu zen. Helduentzat eginiko panpin hark gordetzen zuen sekretuaz jabetu zen, eta berehala dozena erdi Lilli panpin erosi zuen. Sekretua? Barbara alabak aldizkarietatik moztzen zituen emakume eder eta sexy-ei esker, Handler andereak bazekien adin batetik aurrera neskatoei, haurrak baino, emakumeak irudikatzen dituzten panpinak gustatzen zitzaizkiela. AEBetara itzuli zenean, bere senarrarekin zuzentzen zuen Mattel izeneko konpainia txikian halako panpin bat egin behar zutela proposatu zuen. Kostatu zitzaion senarra eta konpainiako diseinatzaileak konbentzitzea, baina 1958an alemaniarrei patentea erosi zien, aldaketa batzuk egin, eta AEBetan ekoizten hasi ziren. Panpin estatubatuarra bainujantzi zuribeltza zuen, ilea ilunagoa eta kizkurra... baina begirada maltzur eta lizuna izaten jarraitzen zuen. Izena ere, Barbararen alabarenetik aldatu zioten: Barbie. 1959ko jostailu azoka internazionalan aurkeztu zutenean, femme fatale itxura eta jarrera zuen panpin hura ez zen dendarien begiko izan eta ale gutxi batzuk baino ez zituzten erosi. Neskato gazteak, ordea, panpin harekin maitemindu ziren. Dendetara iritsi bezain pronto desagertzen ziren. Guraso askoren gustokoa ez izan arren, 350.000 ale saldu zituzten urte beteko epean.


AEBtan gertatzen den moduan, duintasunaren edo beste edozeren aurretik negozioa izaten denez, lehen Barbie hura "bigutzen" joan zen. Hortzak ziritu zitzaizkion, bularrak handitu baina ezkutatu zizkioten eta, zoritxarrez, begirada gaizto hari ebaketa estetikoia egin eta Disney kutsua eman zioten. Eta panpin "lobotomia" amaitzeko, 1961ean, Handler andereak senargaí zintzo bat kaleratu zuen Barbierentzat: Ken.

Bai, asmatu duzue, semearen izena. Inzesto kutsurik ikusten dion bakarra al naiz? Arrakastaren eta emakume batzuen eredu bihurtu den panpin honen ondorengo "american way of life" biografia ez zaigu batere interesatzen, baina garai batean Barbie gaiztoa izan zela kontatu nahi genuen.

The comic writer Reinhard Beuthien created a character called Lilli in 1952 for a strip in *Bild Zeitung* newspaper. His intention was to create an open character for the general public, but Lilli's character and way of being got her male followers right from the start. Lilli was a sexy, frivolous young woman who lit up men's darkest fantasies with her blond hair. We'd bet that Nabokov had her in mind when he wrote *Lolita* in 1955. In the same year that *Lolita* was published, Lilla left the two-dimensional corset of the newspaper and they started making the doll. Thanks to her thin neck, long legs and, above all, the sexy way of looking she had, Lilli's doll became an erotic symbol. The Lilli doll was sold in shops and bars, mostly bought as a joke for giving to men about to marry. At first they had brought it out as weird newspaper off-spin, but it was so successful that this moved production from Hamburg to Hong Kong.

Ruth Handler, a tourist from the States, was visiting Lucerne with her husband Elliot and their children Barbara and Ken when she saw the Lilli doll and was fascinated by it. She immediately realised what the secret of the doll made for grown-ups was and bought half a dozen Lilli dolls. The secret? Thanks to watching her daughter Barbara cutting beautiful and sexy women out of magazines, Mrs Handler knew that, after a certain age, girls like dolls who look like women and not like children. On returning to the States, she suggested that the small company her husband managed, Mattel, should make a similar doll. It took her some time to convince her husband and the company designer, but in 1958 they bought the patent from the Germans and, after making a few changes, went into production in the US. The Stateside doll had a black and white swim suit, darker, curly hair ... but she still had a cunning, sexy look. They also changed the name in honour of their daughter Barbara: Barbie. When they presented the doll at the international toy festival in 1959, the femme fatale like doll wasn't to the shopkeepers' taste and they only sold a few of them. But young girls fell in love with the doll. They sold out as soon as they reached the shops. Some parents weren't so keen on the doll, but even so they sold 350,000 in a year.

As happens in the States, business is stronger than dignity and they toned down the first Barbie. They whitened her teeth, increased her bust but also covered it up and, unfortunately, got rid of her sexy look and gave her a Disney touch. And to complete the lobotomy, in 1961 Mrs Handler gave Barbie a well-behaved boyfriend: Ken. Yes, that's right, her son's name. Am I the only one who sees a bit of incest in that? We're not at all interested in success and the way she became a model of the American Way of Life for some women, but once Barbie was bad and we wanted to tell you that.



m:10

MONTEHERMOSO ARTEA ETA IKERKETA / ARTE E INVESTIGACIÓN 2010
10/06/11 - 18/09/11

ERICK BELTRÁN *Formas de leer* — JUNE CRESPO *El rayo verde* — OIER ETXEBERRIA *La Lana*
AGNIESZKA KURANT *Unknown Unknown* — MARINA NAPRUSHKINA *General Plan*
FILIPA RAPOSO *Actos Remotos* — AINIZE SARASOLA *This is love, This is love?, This is love!*
PRANEET SOI *Sri Nagar*

NEXT: PRESENTACIONES / AURKEZPENAK

10/06/11 - 04/09/11

IMAGEN 2431 *Ciencia ficción abandonada* — OIER IRURETAGOiena *Sin título*

montehermoso fray zacarias martinez, 2 01001 vitoria-gasteiz, +34 945 161 830 www.montehermoso.net



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Udan ere **Entzun!** disko-liburua!

Edizio mugatua. Egin zaitez harpide edo egizu zure erreserba
entzun@entzun.com-en edo 948121976 telefonora deituz

15€



BILDUMA 2010



ENTZUN!

01 ZEA MAYS

Zure pozoidura jarraibideak 02'46

02 SPLIT 77

31 05'01

03 SURFIN KAOS

Berriz ere 03'32

04 SANTIAGO DELGADO

Y LOS RUNAWAY LOVERS

Johnny Ramone 02'49

05 LOS GALERNA

Ciclón 03'29

06 LOBO ELÉCTRICO

Rayo cósmico 03'46

07 ELECTRIC RIDERS

Foreword to abyss 04'33

08 ATOM RHUMBA

Cynic skin 02'59

09 XARMA

Zilborhestea 04'38

POTEMKIN 10

Suge dantza 03'27

ELFO NEGRO 11

Raubzeug on the road 03'17

MANTISA 12

Esaldi errazen erdian 02'08

BUNPADA SOUND 13

Muima 04'21

ESNE BELTZA 14

Hommes et femmes

de couleur 03'38

GOZATEGI 15

Jon Uein 02'52

SOKAIDE 16

Urrutitik kantu 04'28

GIORGIO BASSMATTI 17

Bitizta erdia 02'40

Argazkilaria: Juan G. Andrés

Kevin Smith-en filmak freskoak eta entretenigarriak izaten dira. Are entretenigarriagoa da, ordea, Kevin Smith bera. Eta ongi daki hori New Jersey-ko zuzendariak. Gertatu ohi denaren kontra, AEBko zinema indie-aren ikur garrantzitsuenetakoa izan den zuzendariaren diskurtsoa erradikalizatuz joan da azken urteotan. *Red State* azken filmarekin beste aurrerapauso bat eman du.

Azken Sundance zine jaialdiko edizioan (garai batean zinemaldi alternatiboa zena) hautsak harrotu ditu *Clerks* filmarekin deskubritu genuen zuzendari ausartak. Bere azken filma, *Red State*, filmatzeko, hiru milioi dolar eskas erabili ditu, AEBko industriarentzat hutsaren hurrera litzatekeena. Smith-ek, ordea, bere kaxa lortu du finantzaketa eta bere kaxa ekoiztu du 70eko hamarkadako beldurrezko filmen kutsua duen *Red State*. Ez du filmatu aurretik banaketa-eskubide traturik itxi, eta hori, edozein ekoizleri galdetuta, suizidio hutsa da egun. Baina Smith-ek bazuen plan bat. Sundance jaialdian, estreinako proiektzioaren ostean bere filmaren banaketa-eskubideak enkantean salduko zituela iragarri zuen. Enkantearen ideia berritzaile eta arriskutsuak banatzaile ugari eta Hollywood-eko industria bildu zituen Sundancen. Jakin-min eta morbo handia piztu zen. *Red State* proiektatu ostean, aretoa bete beteta zegoenean, zuzendaria eskenatokian azaldu eta bertan bildutako tiburoiak aho bete hortz utzi zituen. Beno, aho bete hortz baino, hagineko minez. Smith-ek filmaren banaketa-eskubideak bere buruari saldu berri zizkiola iragarri zuen. 20 dolarren truke. Eskerrak eman zizkien industriako negozio gizonen azaltzeagatik eta eskenatokitik jaitzi zen. Iskanbila. Anatema. Kevin Smith-ek bere hilkutxari azken iltzea jarri ziola esan zuten zine industriako arduradunek.

"Silent Bob", ordea, tipo azkarra da. Azkarra eta kementsua. Hollywood-en aurkako bere plana ez zelako bertan amaitzen. Filma erakutsi eta dirua berreskuratzeko *Red State* filmarekin bira antolatu duelako AEBtan zehar. Aretoak alokatu, pelikula proiektatu eta bere agerpenaren eta hitzaldiaren truke sarrera kobratzen du. "Kontu guzti hau ez da berria. Ez naiz ezer berria asmatzen ari. Egin ditudan film guztiekin egin dut promozio bira. Eta beti eman dit amorru handia ikusteak industriari promozioan filma egiten baino hiru bider gehiago gastatzen duela. Orain nik antolatzen dut guztia eta nire kaxa egiten dut. Asmoa da hiru milioi dolarrek jarri dituztenei euren zatia itzultzea. Horretarako, urria bitartean, filma eta hitzaldia eskainiko dugu herrialde osoan zehar 35 dolarren truke. Urritik aurrera, ekitaldirik gabeko proiektzioa eskainiko dugu, zine areto normaletan eta ohiko prezioan". *Red State Tour* izenekoa hasi da eta, uste zenaren aurka, lehen proiektzio bereziek arrakasta itzela izan dute. New York-eko Radio City Music Hall-en 3800 pertsona sartu zituen, eta 140.000 dolarreko irabaziak lortu. Filme osteko hitzaldi entretenigarriak eskaini ditu protagonistak diren Melissa Leo eta John Goodman-ekin, eta oso denbora laburrean hamar film errentagarrienen artean kokatu du *Red State*. Hollywood-eko mayor-etako bulegoetan dardoetara jolasten dute Kevin Smith-en aurpegiaren kontra.

kevin smith vs. hollywood



www.viewaskew.com
www.coopersdell.com

Kevin Smith's films are refreshing different and funny. But Kevin Smith himself is even funnier. And the New Jersey director is well aware of that. Unlike what usually happens, this iconic US indie film director's positions have radicalised over the past few years. He's taken another step forward in *Red State*, his most recent film.


This daring director, whose work we first saw in *Clerks*, caused a stir at the most recent Sundance Festival (which used to be an alternative festival). To make his most recent film, *Red State*, he had a budget of only three million dollars, as if he were a nobody in the US film industry. But Smith, who raised the finance and produced the film by himself, has given *Red State* a 70's horror film flavour. He didn't sign any distribution deals before making the film and anybody would have said that was commercial suicide. But Smith did have a plan. At the Sundance Festival he announced that he would sell the rights to the film in an auction after the premiere. The innovative, risky idea of the auction brought a lot of big Hollywood distributors along to Sundance. There was a lot of curiosity and interest. After showing *Red State* to a full house, the director got onto the stage and astonished all the sharks he'd brought together there. In fact, he absolutely amazed them. Smith told them that he'd just sold the film distribution rights to himself. For 20 dollars. He thanked the industry businessmen for showing up and got off the stage. There was an uproar. It was anathema. The bosses of the film industry said that Kevin Smith has just put the last nail into his own coffin.

But "Silent Bob" is a clever bloke. Clever and energetic. Because his anti-Hollywood plan hadn't finished there. To show the film and to get his money back, he's organized a *Red State* tour around the US. He rents a cinema, shows the film, turns up and gives a conference all on a single ticket. "There's nothing new about this. I haven't come up with anything new here. I've done promotional tours with all my films. And I've always hated the fact that the industry spends three times more on promotion than it does on the films themselves. Now I'm organizing everything and doing it all by myself. The aim's to give the three million dollars back to the people who put them up in the first place. So, up to October, I'll be showing the film and giving talks all over the country for 35 dollars. After October, we'll be showing the film by itself in normal cinemas and at normal prices". *Red State Tour* has started and, in spite of what some people thought, the first shows have been highly successful. At New York's Radio City Music Hall, 3,800 people turned up and 140,000 dollars were raised. The film's stars, Melissa Leo and John Goodman, have given amusing chats after the film and, in no time at all, *Red State* has become one of the top ten selling films. At the big Hollywood studios they're playing darts using Kevin Smith's face as the board.

red state

Red State 70eko hamarkadako beldurrezko filmen kutsua du. Gazte talde batek online gonbidapen bat jasotzen du sexu festa batean parte hartzeko. Festa horren antolatzailea, ordea, bekaketa eta bereziki homosexualak gorroto dituen elizgizon bat da. Hortik aurrera, atera kontuak. AEBtan polemika handia piztu du, eta homosexualak gorrotatzeagatik ezaguna egin den Westboro Baptist Church delakoa (www.godhatesfags.com) filmaren aurka azaldu da eta manifestazioak antolatu ditu proiektatu deneko aretoen aurrean. Promozio gisa oso ongi etorri zaiola onartu du Smith-ek, eta manifestazio eta kontramanifestazio joko horretan parte hartu du ahal izan duenean, betiere hain berea duen umoreaz.

Red State is a film with a 70's horror film flavour. A group of young people receives an invite via the Internet to a sex party. But the people who are organizing the party are churchgoers who hate sin and, in particular, homosexuals. So you can imagine what's going to happen. It's been highly controversial in the States and the Westboro Baptist Church has become famous for hating homosexuals (www.godhatesfags.com), coming out against the film and organizing demonstrations against the project. Smith admits that this has given him a lot of publicity and, with that particular sense of humour of his, he's taken part in the demonstration - anti-demonstration game as much as possible.







(1964, Bielorrusia)

Ingeniaria, matematikoa, zientzialaria eta zinemagilea da.
Engineer, mathematician, scientist and film maker.

sergey loznitsa. he(r)ri(h)otzaren erretratuak portraits of coldness and death

lñor inoiz egon ere ez den lekua. Segur aski betidanik ahantzita izandako lur zatia. Bai komunismoak eta baita kapitalismoak ere ahaztuta utzitako herrialde urruna. Bertan haizearen hotz hotsa besterik ez dena. Zuhaitzetako adarrak mugituz, egurrezko murrak lurrera boteaz, ibaietako uretan uhinak sortuz...

Mundutik at bizi diren bizilagun post-sovietarrak, gaeuz tren geltokian lo eginez, estepako bizimodu latzaren lanak, alkohola kantuekin nahastuz, eta abar.

Zerri bat hilzorira daramate, arrastaka, intzirika. Traktore baten gainean paisaia ikusten dugu, zerriaren intziriki traktorearen zalapartarekin nahasten direlarik, soinu mingarri eta kakofonikoa sortuz. Bat batean kamera horizontalki 90° irauli da. Ixilunea. Zerriaren heriotza kamera-mugimendu batekin izkiriatur. Hori bai kamerarekin idaztea! Kamera-mugimendu bati zentzu bat atsikitzea. Astruc-ek aurreikusten zuen Camera-Stylo-a. Hitchcock, Ford, Lang, ...-en moduan.

Eta era berean paisai horren heriotza. Mundua ulertzeko, barneratzeko, galtzearen dagoen modu bat. Denbora ziklikoarena, naturarena, bizitzarena. Eta ez hiriko gure denbora lineala.

Portrait filman, aldiz, Loznitsak denbora geldiarazten du, izoztu... Honela, zinea erratratu-argazki bihurtu, Roland Barthesen argazkigintza eta heriotzaren arteko erlazioaren alegoria bat lez, mundu baten azken egunak edota munduan egoteko era baten heriotza azaleratuz.

Zineak bete beharreko funtsezko behar bat, memoria egitea. Denboraren igarotzearen krudeltasuna konpontzea, alegia. Heriotza denboraren garaipena besterik ez bait da.

My Joy, errealitatearekiko fikzio porotsuan heriotza beti ere nagusi, haizearen hotz hotsa entzungai delarik. Haize hotzaren hotsak "soinuaren zinemagile" honen pelikula guztiak zeharkatzen bait ditu; zuhaitzetako hostoak eramanaz, paisaiak zurituz, begien kontenplazioa aberastuz, munduaren irakurketa poetiko bat sortzeko.

A place where no-one's ever been. It's probably a bit of land that's always been forgotten. Both communism and capitalism had forgotten about this far-off land. Where nothing but the cold sound of the wind can be heard. Moving the branches of the trees, throwing wooden fences onto the ground, making waves in the river ... Post-Soviet neighbours who live outside the world, sleeping at night in train stations, the hard work of life on the steppes, all mixed with alcoholic singing, and so on.

They drag a pig squealing to its death throes. We see the countryside from on top a tractor, the pig's squeals blend in with the tractor's racket creating a painful, cacophonous sound. Suddenly, the camera turns 90° horizontally. A moment of silence. The pig's death written down by a camera movement.


That really is writing with a camera! A sense closely bound to a camera movement. Astruc got there before Camera-Stylo. Like Hitchcock, Ford, Lang and others like them.

And, in the same way, that countryside's death. A way of understanding the world, taking it in, which is about to be lost. Time in a cycle, in nature, in life. And not our cities' lineal time.

In *Portrait*, on the other hand, Loznitsa stops times, freezes it ... In this way, in the way that Roland Barthes' allegory related photography with death, accelerating a world's last days or death of being in the world in a certain way.

One of the main jobs the cinema has to do, reminding us of things. Solving the cruelty of the passing of time, in other words. Death is no more than time's victory.

My Joy, with death always in charge in the porous fiction of reality, the sound of the cold wind always audible. Because this "film maker of sounds" has the sound of the cold wind in all his films using the leaves on the trees, whitened countryside and contemplating eyes to create a poetic reading of the world.



Getxoko taldearen hirugarren diskoan pop-rock argitsua entzun daiteke, doinu positiboak, "I believe" abestian, adibidez, aurkitzen ditugunak. Konponketa paregabeak erakusten dituen lana da eta nortasun handiko abestiz beteta dator. "You will miss me when I'm gone", "Black sheep" eta "My dear" kantuek, besteak beste, pianoarekin eta Alfonso eta Mercedesen ahotsen jokoarekin sendotasuna lortzen dute.

This Getxo band's third record is full of positive sunny pop-rock sounds, just take a listen to "I believe" to see what we mean. The arrangements on the record are top class and all the songs showcase great character. The songs "You will miss me when I'm gone", "Black sheep" and "My dear" featuring piano and playing on the voices of Alfonso and Mercedes are very strong tunes indeed.



Sweet Oblivion
The natural
Audiomatic 2011



Litoral
#1
Limbo Starr 2011

Mediterraneoko folk tradizionala biltzen da Pau Rockak (La Habitación Roja) gidatutako proiektu berri honetan. Beste hainbat musikariren laguntzarekin, lau abestiz osatutako Ep-a argitaratu du. Askatasun kutsua duten letrak katalanez idatzita datoz, eta bossa bezalako giro goxoak gogoraraten ditu "El nostra meridiá de Greenwich privat" abestiak. Lasai entzuteko eta gozatzeko lana.

Pau Rock (La Habitación Roja) is at the helms of this project that centres on traditional Mediterranean folk music. With the help of musician friends he has released this four track Ep. The lyrics are in Catalan and the songs are immersed in a sweet bossa-sounding atmosphere such as on the song "El nostra meridiá de Greenwich privat". A record to be listened to and enjoyed with time and tranquillity.

Zuzenean harrapatzen diren kantuak sortu ditu Mamba Beat talde bilbotarrak lan berrirako. Unea bizi, unea aprobetxatu nahi dute taldekideek eta "Gaua" bezalako abesti dantzagarri eta biziak sortu dituzte horretarako. Elektronikak inoiz baino pisu nabarmenagoa hartu du bilbotarren lan berrian, eta haien emanaldiak ikuskizun galduezin bilakatzen dira.

The Bilbao-based Mamba Beat have come up with a bunch of songs on their new record that really gets you going live. The band want to capture the energy of the moment and they certainly do so on the likes of the very danceable "Gaua". The use of electronica is more evident than ever on this new record. Not to be missed live.



Mamba Beat
'The'
Tsunami Music 2011



Los Tiki Phantoms
'Mueven el esqueleto'
Bcore 2011

Beste mundutik berpiztutako tximino surfleriak bueltan dira. Hirugarren disko honetan betiko doinuak dakartzate, energiak beteak, aurreko diskoan erakutsitako iluntasunetik aldentzen direnak, eta westernerako joera erakusten dutenak, "La cuerda floja" kantuak bezala. "Fuego" kantuan diskoko une sutuena lortzen dute. Zuzenean ikusteko irrikitan gelditzen gara.

The resurrected surfing monkeys are back from another world. This third album is full of the usual energetic songs although they have moved away from the darker elements they explored on their previous album. On songs like "La cuerda floja" they have come up with a sound that conjures up the wild west and on "Fuego" they live up to the title of the song – scorching hot. Itching to see them live we are.

Toro y Moi da azken urteetako indietronikaren izar berria. Orain lan berriarekin dator eta musikagintzaren joerarik berrienak proposatzen dizkigu "New beat" bezalako abesti organiko eta dantzagarriekin. "Light black" kantuan psikodeliak hartzen du pisua eta diskoa pertsonalitatez betetzen laguntzen du. Zerbait ezberdina bilatzen dutenentzat.

Toro y Moi have been hailed as the new stars of indietronica of the last few years. He's back with a new record and he has all the latest tricks up his sleeve with which to impress us, with songs like the very danceable organic "New beat". The song "Light black" is heavy on the psychedelic and helps give backbone to the record. For those of you looking for something a little different.



Toro y Moi
'Underneath the pine'
Carpark 2011



Bin Ji Ling
Shadow to Shine
Lovemonk 2011

Incarnations eta Phenomenal Handclap Band taldeetako kide den Quinn Luke geldiezina da. Bin Ji Ling ezizenarekin soul, pop eta psikodeliaz betetako disko koloretsua argitaratu du. Hamabi kantu biltzen ditu lanak eta "Move on" lehen kantutik bertatik harrapatzen zaitu. Konposaketa lan handiaren emaitza da diskoa. Erosi genuenetik, gainetik kendu ezinik dugun lana.

Quinn Luke of Incarnations and Phenomenal Handclap Band fame is unstoppable. Using pseudonym Bin Ji Ling he has released this colourful little sparkler that brings together soul, pop and the psychedelic. Twelve songs and from the first song "Move on" you're hooked. The record is the fruit of great song-writing. Ever since we bought it, we just can't put it down.



napoka iria leun eta zuzen vivid smoothness

testua / text by: susana mujika
argazkia / shot: saioa "gailunak"

Miren Narbaiza eta Ander Mujika dira Napoka Iria; 2005ean lehendabiziko kontzertua eskaini zutenetik eszenatoki asko eta era guztietakoak leundu dituzte beraien musikarekin; ez dute kontagailurik baina 200 bat izan direla uste dute, harrigarria bada, orain arte diskorik izan ez duen talde batentzat. Hain zuzen ere, zuzenekoetan zaletu diren entzuleek eskatuta eta aldi berean kantak erregistratzeko behar pertsonalak bultzatuta kaleratuko dute udan beraien lehena; baina zuzenekoak egitea hain gustuko duen bikotea izanik, ia naturala izan da diskoa zuzenean grabatzeko erabakia. Urtarrilean grabatu zuten bi egunez Bergarako Zabalotegi aretoan, giro intimoan baina ikusleen presentziarekin. 8 kanta guztira, 7 propioak eta kontzertuetan izarra bilakatu den Su ta gar-en "zure atzetik" kantaren bertsioa; kalimbak eta ukeleleak lagunduta Napokaren soinekoa jantzi diote, moldaketa ederra osatuz. Napokaren kanten katalogo gozoak ez du bikotearen norabidea aldatuko, kantak egiten eta kontzertuak ematen jarraitzeko asmoa dute, adi beraz zuzenekoei.

Miren Narbaiza and Ander Mujika form Napoka Iria; since they staged their first gig in 2005 they have soften many stages and of every kind with their music; they haven't got a meter but they reckon they may be close to 200, which is weird, for a band that didn't have an album until now. In fact, they are releasing their first this summer to answer their supporters' demand and, at the same time, to fulfil a personal need to register the songs; but being a duo who loves to perform live, it was almost natural to record it live. It was recorded during two days in January at Zabalotegi in Bergara, in a cozy atmosphere in front of their audience. It totals 8 songs, 7 of their own and a version of Su ta gar's "zure atzetik" which has become the sensation in live concerts; helped by a kalimba and an ukelele they have given their own sound to the song, creating a beautiful cover version. The sweet catalogue of Napoka's songs won't change the duo's aims, they are going to carry on writing songs and performing live, so check their live gigs at:

www.myspace.com/napokairia

tiki phantoms

sumendiko soinuak
sounds from the volcano





Aloha,

Kontatu digute 200 urte hilik eta sumendi batetan lurperaturik pasa dituzuela...Zein pekatu klase egin zenuten sumendi batetan lurperaturik amaitzeko?

Jendearen borondatea nahi genuen moduan erabiltzeko botereak genituen eta horrek Kamehameha I erregeari ez zion grazia handirik egiten. Hura bere tronutik botatzeko iraultza hasi aurretik aurreratu zitzaigun eta segada bat egin zigun eta sumendian amaitu genuen. Baina beno egia esan ezin gara kexatu, bertan txaleta eraiki genuen, jacuzzi-a eta guzti eta gure itzulera prestatzen ibili gara hainbat urteetan. Bizirik bazaude adi ibili!

Kritika musikalaren guruek zuen soinua surf gisa sailkatzen dute...guri ordea zerbait gehiago baduela ere iruditzen zaigu, eta kritikariak aspergarriak iruditzen zaizkigunez nahiago zuei zuzenean galdetzea...Zein osagaiekin prestatzen duzue zuen errezeta musikala? Egia esan denetarik dago, rock, punk, soul, eta surf printzak 80. hamarkadako pop kutsuekin. Musika garai ezberdinak bizi izan ditugu eta apurka apurka erreferentzia ezberdinetatik edan dugu.

Zurrunmurruek diote mozorroak erabiltzen dituzuela... argitu gaizki ulertua mesedez...

Halakorik esaten duen hurrenari muturra hautsiko diogu!!! Jazterako orduan elegantzia handia duten kaskezur ibiltariak gara, ez dago besterik!!! Zein txarra den inbidia..kar kar kar kar

Dantzatzea eta ongi pasatzea. Musika traszendentalari aurre egiten dion proposamena da Tiki Phantoms-ena?

Jakina!!! Gure zuzenekoak energia, algara eta dantza festak dira. Gu ikustera datorrenak badaki sekulakoa izando dela eta primeran pasako duela, orrazkera zapuztuko zaion beldurrik izan gabe edo gure kantuek mezu kontzeptuala ote duten pentsatu beharrik gabe. Zuzeneko emanaldiak energia ezandak izan behar dute berriro!!!

Surf instrumental taldeak...aspergarri samarrak izaten dira.. zuen zuzenekoak ordea orgia telurikoak dira... Nondik ateratzen da energia guzti hori?

Irla batetaik gatoz eta irletan gauzak modu basatian egiten dira, indartsuenaren legeak agintzen du eta batek guztia eman behar du beti. Hilezkorak gara eta ez gara inoiz nekatzen!

"Viva las Vegas" esaten badut zer datorkizue burura?

Gu izan behar genuela filme hartado protagonistak baina Elvis moñoñoa erdian sartu eta papera kendu zigun!!! Hala ere apirilean arantzatxoa kendu genuen izen bereko jaialdi mitikoan jo genuenean, eta horri esker baieztatu dezakegu AEBtan bazkaltzen denean, hasteko hanburgesa, jarraian pizza eta postre gisa "nachos con guacamole" jaten jarraitzen dutela.

Agur bero bat eta Tiki Jainkoak zaindu zaitzatela.

tiki, tiki, tiki!!!!

Aloha,

We've been told you've been dead and buried under a volcano for the last 200 years. What kind of sinful carry-on did you get up to to end up buried under a volcano?

We had the powers to use people's wills as we saw fit and that did not particularly please King Kamehameha I. Before we could use it to start a revolution to dethrone him, he made his move and spun a trap. We ended up in the volcano. But truth be told, we can't really complain, we built a nice house there, with a jacuzzi and all that stuff and we plotted our return down through the years. Beware, if you're alive!

Music critic gurus categorize you as making surf music... we, on the other hand, believe there is a little more to it and as we are basically bored by critics we have decided to ask you directly... What ingredients do you use in your musical recipes?

To tell you the truth, there is a little bit of everything in there: rock, punk, soul and dashes of surf with a touch of 80s' pop. We have lived through different musical eras and we have drunk from many different fountains.

Rumours say you use masks... surely this is a misunderstanding?

We'll smack the puss off the next schmuck that says that. When it comes to getting dressed, we are elegant walking skulls. Envy really is a terrible thing, hahahahaha.

Dancing and having a good time. Are the Tiki Phantoms the answer to contemporary and transcendental music?

Sure we are! Our live shows are a feast of dancing, laughter and energy. Anybody coming to one of our shows knows that they are really gonna have a great time. They don't have to worry about messing up their hairdos or if there are any conceptual messages behind the songs. Live shows need to once again be an explosion of energy!!!

Instrumental surf groups... well, they are normally quite boring...your shows, on the other hand, are earthly orgies... Where do you get all that energy from?

We are islanders and on islands things are done in a wild wild way. It's the law of survival of the fittest and you have to give everything your all, always. We are immortal and we never get tired.

If I say "Viva las Vegas", what comes to mind?


We should have been the stars of that film but they decided to put in a sugary sweet Elvis in the middle of it all and we didn't get the part! We'll get to get even in April when we play in the mythical festival of the same name and that is how we can confirm whether in the USA people still start lunch with a hamburger, follow up with pizza and then have nachos and guacamole for dessert.

A fond farewell and may the Great God Tiki protect you all.
tiki, tiki, tiki!!!!

www.lostikiphantoms.com/

ego gutxiago
lantalde gehiago

less ego
more teamwork



the balde.net

atzo, gaur eta bihar
klik bakarrera!

yesterday, today
and tomorrow in
just one click!



the balde zenbakiak
oso-osorik ikusteko aukera
izateaz gain egunero topatuko duzu
proposamen berri eta interesgarriak.
Arteziak sail berrian gainera parte hartu
eta zure txokoa izan dezakezu.

Check all previous the balde numbers.
New contents everyday.
Be a part or the balde in the new Arteziak project.

www.siazgetaria.com

saiazgetaria
HOTELA

T 943 140 143 E info@siazgetaria.com W www.siazgetaria.com

Euskarazko komunikabideak **DENON BEHARRA**

**Duten garrantziaz jabetzeko,
faltan izan arte itxoiten dugu maiz**





hamabi soka
twelve ropes

bularretakoa / bra: gonzales
kuleroak / panties: gonzales
eskularruak / gloves: charlie



ezker / left:
bularretakoa / bra: gonzales
kuleroak / panties: gonzales
eskularruak / gloves: charlie

eskubi / right:
bularretakoa / bra: nichole de carle
kuleroak / panties: nichole de carle
eskularruak / gloves: charlie



behean / below:
bularretakoa / bra: gonzales
kuleroak / panties: gonzales
zapatak / shoes: manolo blahnik
eskularruak / gloves: charlie

goian / above:
bularretakoa / bra: chantelle
kuleroak / panties: chantelle
zapatak / shoes: manolo blahnik
eskularruak / gloves: charlie



ezker / left: bularretakoa / bra: chantelle
kuleroak / panties: chantelle
zapatak / shoes: manolo blahnik
eskularruak / gloves: charlie

eskubi / right: bularretakoa / bra: gonzales
kuleroak / panties: gonzales
zapatak / shoes: mango
eskularruak / gloves: charlie



argazkiak / shots: tatiana luna
argazki laguntzailea / photography assistant: renato brea
modeloak / models: animaija rauno, hélène rose
boxeolariak / boxers: jero garcia, luis cueto
estilismoa / stylism: tatiana luna
esker onak / gratitude: www.laescuelaboxeo.com

